EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

## EDIKTUA, AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO ARGITALPENARI BURUZKOA

Udal honek zerbitzuak eman edo jarduerak burutzeagatiko Prezio Publikoak arautzen dituen ordenantza aldatu nahi du.
Zehazki, Eibarko Udalak antolatutako ikastaro/tailerrei buruzko eranskina aldatzea proposatzen da, hobari-ehunekoak handitzeko gizarte-intereseko eremuak sustatzea helburu dutenei, bereziki emakumeari eta berdintasunari, eta ingurumenari buruzkoak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 130. artikuluak exijitzen du indarrean dauden arauak aldizka berrikustea, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta egiaztatzeko ea indarreko arauek zein neurritan lortu dituzten aurreikusitako helburuak eta arau haietan ezarritako kostua, batetik, eta, bestetik, kargak justifikatuta eta behar bezala kuantifikatuta zeuden.

Udal Ordenantzak aldatzeko haiek onartzeko ezarri zen prozedura berbera erabili behar da, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, erregelamendu-mailako arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea bermatzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa

## EDICTO DE PUBLICACIÓN DE SOMETIMIENTO A CONSULTA PÚBLICA PREVIA

Este Ayuntamiento pretende modificar la ordenanza reguladora de los Precios Públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales.
En concreto, se propone modificar el anexo relativo a los cursillos/talleres organizados por el Ayuntamiento de Eibar, con el fin de incrementar los porcentajes de bonificación de aquellos que tengan como objetivo la promoción de áreas de interés social, en particular las de mujer e igualdad y medio ambiente.

El artículo 130 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, exige revisar periódicamente las normas vigentes para adaptarlas a los principios de buena regulación y para comprobar la medida en que las normas en vigor han conseguido los objetivos previstos y si estaba justificado y correctamente cuantificado el coste y las cargas impuestas en ellas.

Para la modificación de las Ordenanzas municipales debe seguirse el mismo procedimiento que para su aprobación, en virtud de lo previsto en el artículo 56 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local.

Asimismo, con el objetivo de garantizar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas con rango reglamentario, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

betez, Ordenantza prestatu edo haren funtsezko aldaketa egin baino lehen, kontsulta publiko bat bideratu behar da

octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas, con carácter previo a la elaboración o modificación sustancial de la Ordenanza, se sustancia una consulta pública.

Hortaz, udal-zerbitzuak eman edo jarduerak egiteko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza aldatzeko proposamena egin baino lehen, honako Memoria hau jartzen da kontsulta publikoan:

En consecuencia, se somete a consulta pública, previa a la elaboración de la propuesta de modificación de ordenanza reguladora de los Precios Públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales, la siguiente:

**MEMORIA**

**MEMORIA**

a.1) Ingurumenaren arloa sustatzera eta garatzera bideratutako ikastaro eta tailerren aurrekariak

a.1) Antecedentes de los cursillos y talleres orientados a la promoción y desarrollo del área de Medio Ambiente

Ingurumen arloa sustatzera eta garatzera bideratutako ikastaroei eta tailerrei dagokienez, 2021eko udazkenean, udal honetako Ingurumen Sailak “Berrerabili eta berrasmatu” izeneko tailerren programa pilotua jarri zuen abian, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen esparruan bultzatua. Lehen esperientzia hartan parte-hartzeari eta onarpen sozialari dagokionez lortutako emaitza bikainek programa sendotzea eta zabaltzea bultzatu zuten. Hala, 2022, 2023, 2024 eta 2025eko ekitaldietan, urtean bi edizio finko ezarri ziren.

En lo que respecta a los cursillos y talleres orientados a la promoción y desarrollo del área de Medio Ambiente, en el otoño de 2021, el Departamento de Medio Ambiente de este Ayuntamiento puso en marcha el programa piloto de talleres denominado “Reutiliza y Reinventa”, impulsado en el marco de la Semana Europea de Prevención de Residuos. Los excelentes resultados obtenidos en aquella primera experiencia, medidos tanto en términos de participación como de aceptación social, impulsaron la consolidación y ampliación del programa. De este modo, durante los ejercicios de 2022, 2023, 2024 y 2025, se establecieron dos ediciones fijas al año.

Tailer horien bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko, Ingurumen Sailak urtero dirulaguntza bat kudeatzen zuen, Eusko Jaurlaritzaren ekonomia

Para asegurar la viabilidad económica de estos talleres, el Departamento de Medio Ambiente gestionaba con carácter anual una subvención integrada

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **80f5f2c7a83141600f583f863d70b32539164cb7**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DI9000-000131/2026**
**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
| --- | --- |
| **JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)** | **23/07/2026 12:01:09** |

zirkularraren ildoaren barruan. Laguntza horri esker, proiektuaren zenbateko osoaren % 80 ordain zitekeen gehienez. Hala ere, finantziazio-egoera aldatu egin da, dirulaguntza horiek behin betiko desagertu direlako.

en la línea de economía circular del Gobierno Vasco. Dicha ayuda autonómica permitía cubrir hasta un máximo del 80% del importe total del proyecto. No obstante, el escenario de financiación ha variado como consecuencia de la desaparición definitiva de dicha línea de subvenciones.

a.2) Emakumearen eta berdintasunaren arloa sustatzeko eta garatzeko ikastaro eta tailerren aurrekariak

a.2) Antecedentes de los cursillos y talleres orientados a la promoción y desarrollo del área de mujer e igualdad

Andretxeak, Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren baliabide gisa, errealitate sozialaren eraldaketan laguntzea du xede, emakumeen ahalduntzea sustatuz, asoziazionismoa eta parte-hartze soziopolitikoa indartuz, indarkeria matxistari aurre eginez eta tratu onak sustatuz, gizarte berdinzaleago, feministago eta inklusiboago baterantz aurrera eginez.

Andretxea, como recurso del Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Eibar, tiene como finalidad contribuir a la transformación de la realidad social mediante el impulso del empoderamiento de las mujeres, el fortalecimiento del asociacionismo y la participación sociopolítica, la prevención y actuación frente a la violencia machista, así como la promoción de los buenos tratos, avanzando hacia una sociedad más igualitaria, feminista e inclusiva.

Testuinguru honetan, Eibarko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren ikastaro eta tailerren programa emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta emakumeek gizarte- eta komunitate-bizitzan aktiboki parte har dezaten bultzatzeko udal-tresna nagusia da.

En este contexto, el programa de cursos y talleres de la Escuela de Empoderamiento para Mujeres de Eibar se configura como el principal instrumento municipal para la promoción del empoderamiento de las mujeres y favorecer su participación activa en la vida social y comunitaria.

b) Konpondu nahi diren arazoak:

b) Problemas que se pretenden solucionar

Aldaketa honen bidez, herritarren parte-hartze handiagoa bultzatu nahi da, eta ingurumenaren eta

Con esta modificación se pretende favorecer una mayor participación de la ciudadanía y reforzar la

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **80f5f2c7a83141600f583f863d70b32539164cb7**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DI9000-000131/2026**
**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
|---|---|
| **JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)** | **23/07/2026 12:01:09** |

emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko udal-politika publikoen eraginkortasuna indartu, ahal den neurrian oztopo ekonomikoak ezabatuz.

eficacia de las políticas públicas municipales en materia de medio ambiente e igualdad entre mujeres y hombres, eliminando en la medida de lo posible las barreras económicas.

c) Ordenantza onartzeko beharra eta aukera:

Ordenantza aldatzea beharrezkoa da Udalak antolatzen dituen ikastaro eta tailerretako hobarien araubidea ingurumen-jasangarritasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko udal-helburuetara egokitzeko.

c) Necesidad y oportunidad de su aprobación:

La modificación de la Ordenanza resulta necesaria para adecuar el régimen de bonificaciones de los cursillos y talleres organizados por el Ayuntamiento a los objetivos municipales de promoción de la sostenibilidad ambiental y de la igualdad entre mujeres y hombres.

d) Ordenantzaren helburuak:

Aldaketa honen helburua da ingurumenaren iraunkortasuna eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko udal-helburuei erantzutea, Eibarko Udalak antolatutako ikastaro eta tailerretan aplikatu beharreko hobari-ehunekoak aldatuz.

Zehazki, hobari-ehuneko hauek handitu dira: ingurumenaren arloan udalerriaren ingurumen-kalitatea hobetzera eta baliabideen kudeaketa egokia sustatzera bideratutako ikastaro eta tailerrei aplikatu beharreko hobari-ehunekoak, eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzera bideratutako ikastaro eta tailerrei aplikatu beharrekoak, herritarrek

d) Objetivos de la ordenanza:

La presente modificación tiene por objeto dar respuesta a los objetivos municipales de promoción de la sostenibilidad ambiental y de la igualdad efectiva entre mujeres y hombres mediante la modificación de los porcentajes de bonificación aplicables a los cursillos y talleres organizados por el Ayuntamiento de Eibar.

En concreto, se incrementan los porcentajes de bonificación aplicables a los cursillos y talleres destinados a promover, en el área de medio ambiente, la mejora de la calidad ambiental del municipio y la adecuada gestión de los recursos, así como a los orientados a promover la igualdad efectiva entre mujeres y hombres, con el fin de fomentar la participación de la ciudadanía en estas actividades.

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

| Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **80f5f2c7a83141600f583f863d70b32539164cb7**<br>Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DI9000-000131/2026**<br>**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do** | |
|---|---|
| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
| **JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)** | **23/07/2026 12:01:09** |

jarduera horietan parte hartzea sustatzeko.

e) Bestelako balizko irtenbide arautzaile eta ez-arautzaileak:

Ordenantza arautzailea, alegia, egungo ordenantza, aldatzea da irtenbiderik egokiena aipatutako ikastaroen hobari-portzentajea aldatzeko.

e)Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias:

La modificación de la Ordenanza reguladora constituye la solución más adecuada para modificar el porcentaje de bonificación de los cursos citados es la modificación de la ordenanza actual.

Hogei eguneko epean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83.2 artikulua), ediktu hau Udalaren webgunean argitaratu ondoren, hala egin nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek honako posta elektroniko honen bidez helarazi ahal izango dituzte beren iritziak: zergak@eibar.eus

Durante el plazo de los veinte días (art. 83.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas) siguientes a la publicación del presente edicto en el sitio web municipal, los/as ciudadanos/as, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, podrán hacer llegar sus opiniones a través de la siguiente dirección de correo electrónico: zergak@eibar.eus.

Eibarren,

Alkatea

En Eibar,

El Alcalde

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **80f5f2c7a83141600f583f863d70b32539164cb7**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DI9000-000131/2026**
**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
| --- | --- |
| **JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)** | **23/07/2026 12:01:09** |